

2019KO URRIAREN 31N GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamaika

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hemeretzia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ-PNV)

BILDUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

ETORRI GABEAK: Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

1.- AURREKO AKTA. 2019ko irailaren 26ko aktaren onespena.

2019ko irailaren 26ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- OBRA ZIURTAGIRIAK:

- Beasaingo Trenbide kaleko obrei dagokion 3. obra-ziurtagiria (2018PROB0005)

Aho batez onartu da. “**Trenbide kalea berrurbanizatzeko**” obrei buruzko obren 3. ziurtagiria, **96.179,16 €**koa (BEZ barne).

- PUMTRACK pista egiteko obren likidazioa (2019PROB0004)

Aho batez onartu da, “**Igartzako kirol gunean skatepark zegoen tokian pumptrack pista egiteari**” obrei buruzko likidazioa **97.936,92 €**koa (BEZ barne).

3.- OBRAK KONTRATATZEA: Alkartasuna Lizeoko HLHIko areto balioaniztunaren ebakuaziorako bideak egokitzea. Pleguak onartzea. (2019PROB0007)

Lehenik. Beasaingo "AlkartasunaLizeoa" HLHIko areto balioaniztunaren ebakuaziorako bideak egokitzeo obrak kontratatzeo deialdia egitea eta baldintza plegu administratiboa nahiz tekniko onartzea.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 103.653,55 €.

4.- *Egikaritze epea:* 10 aste.

5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:*

- Ezaugarrien koadroko 6. atalean adierazitako sailkapena edo

- 130.599,90 €, baino handiagoa edo berdina den urteko negozio-bolumena kontratuaren eremuan, amaitutako azken hiru urtetan negozio-bolumen handiena izandako urteari dagokionez, eraketa edo enpresariaren jardueren hasiera eta proposamenen aurkezpen daten arabera, 2017ko SPKLaren 87.3.a artikulua bigarren paragrafoan adierazi bezala egiaztatuta. CPV kodeen eskaria metatua da.

6.- *Kaudimen tekniko:*

- Bitarteko hauekin egiaztatuta:

- a) Ezaugarrien koadroko 7. atalean adierazitako sailkapena edo Egikaritze onaren ziurtagiriek bermatutako azken bost urteetan egikaritutako lanen zerrenda, kontratuaren xede den talde eta azpitaldean, gutxienez 72.557,48 €-ko kopurura iritsiko dena. Ziurtagiri hauek lanen zenbatekoa, datak eta egikaritze tokia jasoko dituzte eta zehaztuko da lanbidea zuzentzen duten arauen arabera burutu eta egoki amaitu ziren. Aginte eskudunak zuzenean helarazi ahalko dizkio ziurtagiriak kontratazio-organoari. Konpetentzia maila nahikoa bermatzeko beharrezkoa denean, ahalorde esleitzailerek adierazi ahalko dute azken bost urteetan egikaritutako lanen ziurtagiriak izango dituztela kontuan.
- b) Obrako buru, obrako arduradun eta topografo izendatutako pertsonen titulu akademiko eta profesionalak (ikus 14. atala).
- c) Obra egitera zuzendutako makineria, material eta talde tekniko zein izango den jasoko duen adierazpena, dagokion egiaztatutako batera, kontratazio organoaren menpeko zerbitzuek eskatzekotan.

500.000 euro baino txikiagoa den gutxi gorabeherako balioa duten kontratuetan, kontratista enpresa sortu berria bada, hau da, bost urtetik beherako antzintasuna

badu, kaudimen tekniko a) eta b) edo c) letretan aipatzen diren bitartekoetako baten edo batzuen bidez egiaztatuko da. Kasu horietan ezingo da aplikatu a) atalean xedatutakoa, obra-kopuru jakin bat eginda izateari buruzkoa.

7.- *Sailkapena: Multzoa: C (eraikinak), Azpimultzoa: 2 (adreilu eta hormigoizko egiturak) eta Kategoria: 1*

8.- *Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Euskadiko Kontrataziorako plataforman.*

9.- *Proposamen eredia: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.*

10.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Euskadiko kontratazio plataforman, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan (ordu muga, 14,30)*

11.- *Adjudikazio irizpideak:*

Balorazio automatikoa:

- Proposamen ekonomikoa: 95 puntu.

- Euskara: 5 puntu.

12.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

13.- *Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerik administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte."*

14.- *Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak*

Kontratua gauzatzeko langile gehiago kontratatu behar bada eta enpresa kontratatzailerik edo azpikontratatzailerik emakumeen ordezkaria desorekatua baldin bada lantaldean kontratua gauzatzeko, gutxienez beste emakume bat kontratatu beharko du obrak irauten duen artean, edo emakume baten aldi baterako kontratua behin betiko kontratu bihurtu beharko du. Lantalde desorekatutzat ulertuko da emakumeak lantalde osoaren % 40a iristen ez baldin badira."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamena aho batez onartu dute.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko zazpiak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.